

## Gaia: Nire asterokoa

Doinua: Astoa ikusi nuen

1) Nik iten det kirola  
bi modutakoa  
kirol hoiek itean  
nahiz benetakoa  
lagunekin batera  
giro magikoa  
nik ondo pasatzen det  
horrekin nahikoa

2) Bata saski-baloia  
ta atletismoa  
eta biak iteko  
daukat nik asmoa  
sendatu beharko det  
nik nire zangoa  
aitak dion bezala  
“behar da gogoa”

3) Asteko lau egunak  
nik okupatuta  
entrenamenduk ditut  
klasek bukatuta  
entrenamendutatik  
oso nekatuta  
astea amaitzen det  
nik agobiatuta

4) Astelena daukat nik  
deskantsu eguna  
nere amaki astintzen  
baitit nei garuna  
etxean ordu batez  
amaren jarduna  
frantsesa izaten da  
ikasten deguna

5) Kiroletaz aparte  
ikasketak daude  
lanak eta kontrolak  
nekatuta gaude  
aste askotan nago  
deskantsurik gabe  
lan asko iten det nik  
gainera debalde

6) Mila gauza buruan  
ditut nik astero  
eta urte osoan  
horrela espero  
ereindako haziak  
mardul eta sendo  
jasoko ditut noski  
aleginduz gero

Egilea: Larraitz